

**2015EKO IRAILAREN 24AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita laua.

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko uztailaren 30eko aktaren onespena.

2015eko uztailaren 30eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- JUBILAZIO PARTZIALEKO PLANA EZARTZEKO BEASAINGO UDALEKO AKORDIOA. Akordioa onartzea.

Aitor Aldasoro Alkate jaunak (EAJ-PNV), antolakuntza batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

*“**Lehenengoa.**-2015-09-10ean izandako bileran Antolakuntza Batzordeak adosten du akordioa bere berrespenerako UdalBatza Osora eramatea. Aipatutako akordioan Jubilazio Partzialeko Plan bat ezartzen da; Alde sozialarekin hitzartuta dago eta Gizarte Segurantzako Institutuko Nazionalako Probintziako Zuzendaritzaren eskura jarri zen arauzko epean, eskatutako baldintza guztiak betetzen zituztelarik, bai abenduaren 28ko 171/2012 Errege Dekretuko 4. artikuluko 1. eta 3. ataletan eskatutakoak, prestazioen inguruko zehaztutako xedapenen garapena, eta abuztuaren 1eko 27/2011 Legea, Gizarte Segurantzako sistemaren eguneraketa, egokitzapena eta modernizazioaren ingurukoa.*

Bigarrena.- Aipatutako akordioaren edukia ondoren datorrena da:

“JUBILAZIO PARTZIALEKO PLANA EZARTZEKO BEASAINGO UDALEKO AKORDIOA

Beasainen, 2013ko martxoaren 20an

Alde batean, enpresaren aldetik, Alkatea, Koldo Agirre Mujika jauna, adinez nagusia, N.A.N 72.487.359 F, Beasaingo Udalaren izenean, P2002100B IFZa eta Kotizazio Kontuaren Kodea 20/0003323-80 eta bere Erakunde Autonomoak, Musika Eskola (20/5504403), Antzizar Kiroldegia (20/004649385), Euskaltegia (20/004932406 eta 20/106874867) eta helbidea San Martin Plaza z/g delarik.

*Beste aldean, eta langileen ordezkari bezala:
Susana Velazquez Rodriguez and. (ELA/STV)
N.A.N. 0931259-B*

Bi aldeek, eguerdiko 12:00ak izanik, enpresako lokaletan biltzen dira, **Jubilazio Partzialeko Plaza ezartzeko enpresako akordio kolektiboa** izenpetzeko asmotan, berau izenpetzeko gaitasun eta legitimazio osoa dutelarik, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legeko 83.3 eta 87 artikuluen arabera, non bertan Langileen Estatutuen Legeko testu bategina onartzen den, ADOSTEN DELARIK:

LEHENA.- Beasaingo Udalak, 2008-10-30eko Osoko Bilkuran, Euskal toki-erakundeetako langileen baldintzak arautzen dituen Akordioa (2008-2010) onartzea erabaki zuen, eta bera luzatutzat jotzen da ondorengo akordio arautzailerik ez dagoelako. Aipatutako atxikitze akordio hau, 4. zenbakia duen G.A.Oean argitaratu zen 2009-01-08an eta aipatutako Akordio Arautzailearen testu osoa, 231. zenbakia duen E.H.A.Oean argitaratu zen 2008-12-02an; non bere 173. artikuluan, langile laboralari eragiten diona, ondorengo jasotzen den:

“173 Artikulua.-Denbora partzialeko txanda kontratuak eta borondatezko erretiroa. Indarrean dagoen legediak jasotzen dituen baldintzak beteta, eskaera egiten duten langileei denbora partzialeko borondatezko erretiroa hartzeko aukera emango die Erakundeak: horren ordezkotzat kontratua denbora partzialekoa edo lanaldi osokoa izango da”; beraz ekintza honekin ezarri nahi dena da aipatutako Jubilazio Partzialeko Plana aldi-baterako indarrean egongo dela, izenpetzen den egunetik hasita 2018ko abenduaren 31 arte (barne).

BIGARRENA.- Abuztuaren 1eko 27/2011 Legeko hamabigarren xedapeneko 2. atalean, Gizarte Segurantzako sistemaren eguneraketa, egokitzea eta modernizazioaren ingurukoa, dio:

“2. Jubilazio pentsioaren araudia aplikatzen jarraituko da, bere modalitate ezberdinetan, Lege hau indarrean sartu baino lehenagoko unean indarrean dauden sarbide baldintzetan, prestazioak zehazteko baldintza eta arauetan, 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenago ematen diren jubilazio pentsioetan, ondorengo kasuetan:

c) 2013ko apirilak 1a baino lehen jubilazio partzialeko pentsioa onartzen zaienak, eta data hau baino lehen enpresako hitzarmen kolektiboetan jasota dauden jubilazio partzialeko planetara sartu diren pertsonak, kontuan hartu gabe, jubilazio partzialera heltzeko data 2013ko apirilaren 1a baino lehenago edo ondoren izan den.”

HIRUGARREN.- Enpresakoak diren langileak eskubidea izango dute partzialki jubilatzeko, honekin batera errelebo kontratua burutuz, abuztuaren 1eko 27/2011 Legea, Gizarte Segurantzako sistemaren eguneraketa, egokitzea eta modernizazioaren inguruko Legea indarrean sartu baino lehenagoko baldintzetan, sarbide baldintzak, baldintzak eta prestazioak zehazteko arauetan.

LAUGARRENA.- Akordio hau izenpetzerakoan, 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenago Jubilazio Plan honetara sartzeko baldintzak betetzen edo beteko dituzten enpresako langileak ondorengoak dira:

Udala:

Josefa Sorazu Aizpitarte
Gurutze Sukia Esnaola

Antzizar Kiroldegia:

Juan Garín Aldasoro

Euskaltegia:

Mari Paz Martín Orio

Musika Eskola:

Ane Lore Erguin Aranburu
Xabier Zelaia Ezenarro
Amalia Ibañez Arbizu

BOSTGARRENA.- Aldeek hitz ematen dute jakinaraziko dutela eta Gizarte Segurantzako Institutuko Nazionaleko Probintziako Zuzendaritzaren esku jarriko dutela Jubilazio Partzialeko Plana hau, 2013ko apirilaren 15a baino lehen, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztelarik, bai abenduaren 28ko 171/2012 Errege Dekretuko 4. artikuluko 1. eta 3. ataletan eskatutakoak, prestazioen inguruko zehaztutako xedapenen garapena, eta abuztuaren 1eko 27/2011 Legea, Gizarte Segurantzako sistemaren eguneraketa, egokitzapena eta modernizazioaren ingurukoa.

Eta adostasuna adieraziz aipatutako dokumentua sinatzen dute goian aipatutako lekuan eta datan.”

Hitz egiteko txanda, eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- MOZIOA. Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeak aurkeztutako mozioa, errefuxiatuen krisi humanitarioaren inguruan eta Udal hau aterpe-hirien sarean sartzeari buruz.

Aitor Aldasoro Alkate jaunak (EAJ-PNV) azaldu du, udal taldeekin beste testu bat adostu dela eta horren ondorioz Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeak aurkeztutakoa ez dela eztabaidan jarriko ezta ere bozkatuko.

Hiru udal taldeek adostutako errefuxiatuei buruzko ondorengo adierazpena irakurri du:

“Azken urteotan ugaritu den eta batik bat, uda honetan hartu duen garrantzi eta tamainarengatik, aurrekaririk ez duen errefuxiatu uholde baten aurrean gaude.

Ehun milaka dira Siria, Afganistan, Irak, Libia eta beste jatorri batzuetatik, gerratik, errepresiotik eta pobreziatik ihesi doazen pertsonak. Bizitza duin baten bila Europar

Batasunera bidean, haietako asko beren bizia galtzen edo egoera tamalgarriak pairatzen ari dira.

Ilido horretatik, ezin dugu ahaztu gizakien segurtasunaren arlo guztiak arriskuan jartzen dituzten egoera horietan dugun erantzukizuna: militarra, ekonomikoa zein politikoa. Errefuxiatuen fenomenoak ez da berria, eta oraindik ere gure artean, euskal gizartean, milaka dira gerratik ihes egin behar izan zuten herritarrak. Gizarte duin orok halako egoeraren aurrean erreakzionatu beharra du.

Testuinguru honetan, Beasaingo udalak ondokoa adostu du:

1. Beasaingo udala Europar zehar sortzen ari den "babeserako Hirien Sarea" delakoari atxikitzea.

2. Giza eskubideen alorrean, eta zehazki errefuxiatuei aterpe eta babesa eskaintzen ari diren erakundeekin, EUEDE eta Gipuzkoako Foru Aldundia bereziki, harremanetan jartzea.

3. Herri mailan dauden aukerak eta harrera egiteko ahalmenak aztertzea, kontutan hartuta Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak, EUEDE eta GKEak lantzen ari diren protokoloa.

4. Deialdi hau gainerako instituzioei eta baita jendarte eragileei eta herritar guztiei ere luzatzea, egoeraren larritasunaz jabetu eta ondorioz beren ahaleginak norabide berean bil ditzaten."

Hitz egiteko txanda, eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ALKATEAREN EBAZPENAK.

Ezagutzera eman dira, 2015eko uztailaren 27tik irailaren 19ra bitarte emandako ebazpenak, biak barne.

PREMIAZKO PUNTUA

Aitor Aldasoro Alkate jaunak (EAJ-PNV) premiazko puntu sartzea proposatu du, hain zuzen ere, GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOAN eta IKASLANen ordezkariak izendatzea. Beste erakundeetako ordezkariak izendatu zirenean, hauetakoak izendatu gabe geratu zirela dio eta orain erakunde horietako bilerak egiten hasi behar direnez, komenigarria dela izendapenak egitea adierazi du, hurrengo plenorako utzi gabe.

Gaia, premiazko puntu modura sartzea bozkatu da eta aho batez onartu da.

Horren ondorioz, ondorengo proposamenaren berri eman da:

“Gaia: udalak parte hartzen duen entitateetan ordezkariak izendatzea.

1.- GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA - IKASLAN

Titularra / Titular:	SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
Ordezkoa / Suplente	ANGEL REDONDO FERNANDEZ

2.- GOIEKI (Administrazio kontseilutik kanpo egiten diren bileretarako / reuniones que no sean del Consejo de Administración): AITOR ALDASORO ITURBE.”

Hitz egiteko txanda, eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK. Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

AZKEN ATXILOKETAK

Aldez aurretik eskatuta, Alkateak Koldo Agirre jaunari (Beasaingo EH BILDU), hitza eman dio eta honek ondorengo testua irakurri du:

“Euskal Herriak ez du ezagutu, azken 175 urteotan, gatazka bizitzan ez duen belaunaldirik. Herri honek, modu batean edo bestean, ondo asko ezagutzen ditu gatazka etengabea bizitzeak dituen ondorioak. Orain ia lau urte, Aieteko nazioarteko bake konferentzian, gatazkaren behin betiko konponbiderako aukera eta esperantza ireki zitzaizkion Euskal Herriari.

Orduan, nazioarte osoaren begiradapean, alde bakartasunez emandako pausoek behin betiko bakea ekarriko zuten bideak ireki zituzten. Euskal Herriak hainbeste denboran amestutako bakea lortzeko bideari ekin zion.

Esperantzaz beteriko une haiek, ordea, oztopo eta traba ugari ezagutu dituzte: tamalez, herri honek bakean bizitzeko hartutako erabakiaren aurka, Estatu espainiar eta frantsesek, elkar lanean, gure bidea zapuztea erabaki dute. Ez dute bakerik nahi; gatazkan bakean baino erosoago sentitzen direlako.

Herri baketsua da gurea, bakea bakean biziz eraiki nahi duena. Bakean bizitzea erabaki duena. Konponbiderik nahi ez dutenen aurrean, gatazka etengabea aritu nahi dutenen aurrean, hitza eta erabakia nahi dituena. Erabakia eta bakea.

Ez dira txikira jokatzeko garaiak. Herri bezala hartutako erabakia, bakean eta askatasunean bizitzeko erabakia, muturreraino eramatekoak baizik. Abagune historiko honetan, beste behin, herri gisa jokatzeko erantzukizuna eta bete beharra dauzkagu. Ezin diegu hutsik egin bakea amets izatetik errealitate izatera igarotzeko hainbeste lan egin duten milaka eta milaka herritarrei.

Horregatik, Euskal Herriari eta geure buruari bide-aldi egin nahi dizkiegu, zintzasunetik eta tinkotasunetik. Lehena, jarrai dezagula bakearen bidean urratsak ematen, elkar bizitzan eta bake gintzan eredu izaten. Ez diezaiogun uko egin bakean behin betiko bizitzeko ametsari. Jarrai dezagun posible dela erakusten. Jarrai dezagun, bakoitzak guretik, dagokiguna eginez, herri bezala bakea eraikitzen.

Bigarren deialdia, datorren urriaren 3an Donostiako kaleetan 17:00etatik aurrera, «Bakea, erabakia» lelopean egingo dugun manifestazioan parte hartzea. Bete ditzagun Donostiako kaleak bake eta askatasun-egarriz. Bihur ditzagun Donostiako kaleak behin betiko bakera eramango gaituzten bide. Bihur ditzagun bideak pauso eta pausoak bide, Euskal Herriak, azkenean, gatazkarik ezagutuko ez duten belaunaldi berriei ongietorria egin diezaion.

ZABORRAK ETA EDUKINONTZIAK

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Egunkarian irakurri dugu, Alkateak esan duela aurreko legealdiko bertziklapen tasa ikusita, neurriak hartu behar direla, edukinontzi berdea kenduz eta grisa jarritz. Non hartu da erabaki hori?. Norekin?. Lehengo legealdian zuekin adostu genuen gai hau arlo politikotik ateratzea eta aparteko gai modura tratatzea. EAJren talde politikoak esan zuen oraindik ere organikoak egiteko bidea zuela eta edukinontzi grisa aurrerako jarriko zela. Orain esandakoa irakurri dugunean harrituta geratu gara.

Aitor Aldasoro jaunak ((EAJ-PNV): “Nik esan nahi izan nuena edo nik nire ustetan esan nuena da berrikuntza zein den. Zuek lehengo legealdian ezarri nahi zenutena, justu hori. Horregatik esan dizut berrikuntza zer den. Aurrera begira ikusten da hurrengo pausoa zein izango den, baina ez noiz. Nire ustez hori izan da transmititu nahi izan dudana. Sasietako teknikariekin kontratatuta dago eta beraien onespina da, hau da, beste herrietan martxan jarri diren, bai Zegaman bai Ormaiztegin oker ez banago, Idiazabalen orain jartzea doaz, hau da, aho handiko edukinontzi berdea kendu eta edukinontzi grisa jarri. Justu aurreko legealdian onartu zena, hori da behintzat nik esan nahi nuena. Horregatik galdetzen dizut berrikuntza non dagoen, zeren eta aurretik hartutako erabakia da eta guk ere ikusten dugu neurri etorri behar dela, naiz eta ez jakin esaten noiz. Pausoak eman beharko ditugu horretarako denok adostuta. Ni zuek planteatu zenuten momentuan jartzeko aurkakoa nintzen, iruditzen zaigulako oraindik ere, edukinontzi marroiak bidea duela egiteko,

oraindik jende guztia apuntatu ez delako eta jakin behar delako zenbat etxebizitza hutsik dauden. Sasietan eskaera bat egina dago, aztertzeko eta jakiteko hurrengo pausoak zeintzuk izan behar diren edo nola egin behar diren. Baina, berriro diot berrikuntza ez da, baizik eta aurrez hartutako erabakia izango dela duk ere ikusten duguna aurrera begira. Nik esan ez dudana da hori jarriko denik edo ez dut hori esan nahi izan.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Hori kazetariarekin hitz egin beharko duzu.”

Aitor Aldasoro jaunak ((EAJ-PNV): Bai, baina ohitura hori lehengo legealdian hartu zenuten, hau da, aldizkari batean argitaratutakoa hona ekartzearena. Aldizkariarekin hitz egin beharko duzue edo aurretik aldizkariarekin hitz egin beharko dugu besteok, zeren eta bestela zertan bihurtzen da Osoko Bilkura?”.

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Forma kontua da. Zure soldata, obrak, Zazpiturrietako kalea konpontzearena eta beste gauza batzuetaz egunkarietatik enteratu gara. Ez dakit zein den horren intentzioa.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ-PNV): “Ulertuko duzu gai orokorretan galdetzen bazaigu zein den gure intentzioa..., baina kurioa da Zazpiturrietakoa galdetzea zuek ere ados zeundetenean. Hori ez da inbentatutako gauza bat. Zaborrekin berdina, zuek planteatutakoa bada....Aitor, zuen emaitzen ardura guk ez dugu eh?. Oposizioa egitea ondo dago, baina mutur horretaraino eramatea...!. Zeuek proposatutako bide bat galdetu eta erantzuten delako, badirudi ez dugula inorekin harremanik izan nahi eta guk inposatu egin nahi dugula gure ikuspegia, hain justu esaten dudana dela aurreko legealdian hartutako erabakia. Minduta sentitzea horrelako gauzengatik, ez dakit, ez dut ulertzen.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Guk aurreko legealdian onartutako igogailuen proiektuak bertan behera uztea erabaki duzue eta jakin nahiko genuke benetako arrazoiak zeintzuk diren. Esaten duzue sare hornitzaileek ez dutela baimenik ematen, sare horien gainetik igogailua jartzeko, baina hori ez da horrela. Gezurretan zabiltzate.”

Aitor Aldasoro jaunak ((EAJ-PNV): Zein proiektu?. Ikusi nahi ez duena baino itsu handiagorik ez omen dago. Ur Agentziak emandako txostenak hor daude. Aurreko legegintzaldian eskatu nituen hirigintza batzordean ea igogailuaren azpitik pasatzen diren sareei buruzko txostenak bagenituen, onartzen zutenak igogailu hori hor jartzea. Baietz erantzun zitzaidan, baina bitakoren bat, edo ez ziren eskatu edo udal honetara ez ziren iritsi. Orain Ur Agentziari, Iberdrolari edota Naturgas-i txostenak eskatu zaie eta inork ez du aldekorik eman. Bi azken hauen baimenak baldintzatuta daude, baina gero udal

teknikariak dio biek jartzen dituzten baldintzak batera ezin direla bete. Aldiz, Urak-ek emandako txostena ez da aldekoa. Hori ez da gezurretan ibiltzea, baizik eta horrek esan nahi duena da egokiagoa dela igogailua hor ez jartzea.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera zazpiak eta hogeita bostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.